

BILBO ZAHARREKO AUZOAREN PRENTSA OHARRA:

Bilbo Zaharretik jakinarazi nahi dugu, uztailaren 24tik aurrera, Atxurigorri auzo elkarteak Bilbora heldu diren eta instituzioek artatzen ez dituzten migrariekin burutzen ari diren lan politikoa gure egiten dugula.

Atxurin, auzokideon elkartasun eta konpromezu politikoak ahalbideratu du pertsona hauek gure artean egon ahal izana. Elkartasun eta konpromezu hau izan beharko luketen arduradun politikoek ez dute holakorik adierazi ordea, nahiz eta hauek diren arazo estruktural honi irtenbide integrala eman behar diotenak.

Egoera hau salatu nahi dugu agintarien aurrean; alde batetik, migrarien beharrezanezi ez dietelako behar bezala erantzuten, eta bestetik, martxan jarri diren dispositiboak, nahikoak ez izateaz gain, ez dituztelako beraien hil edo biziko beharrak asetzen.

Esanak barik, eginak nahi ditugu.

Ikaragarri arduratzen gaituzte azken egun hauetan arduradun politiko ezberdinek egindako adierazpenek, adieraziz `` martxan jarritako dispositiboak nahikoak direla beraien beharrezanezi asetzeko''edo ``migrarien zirkulazioa asumitu behar dugula baina hemen gelditzea ez ''.

Irmoki diogu, adierazpen hauek ez diotela errealitateari erantzuten, eta, argi eta garbi ikusi daiteke egia ezkutatzea dutela helburu. Horrez gain, ez dute bat egiten Bilbo Zaharreko auzoak dituen sentsibilitate zein baloreekin.

Azken egun hauek 3 erpin zehatz duten argazkia utzi digute:

1. Bilboko gendarteak emandako erantzuna bikaina izan da. Instituzioek burutu ez duten lana egitea erabaki da; Giza eskubide internazionalen arauak betetzea eta administrazioak burutu beharko lituzkeen eta bete gabekoak agerian utzi dira eta bestetik, Herri presioari esker, transtioan dauden lagunentzat nahikoak ez diren oinarrizko eskuide batzuk egikaritzea lortu da
2. Bigarren hausnarketa, Sentsibilitate, kordinazio zein baliabiden urrien eta administrazioaren gaitasun eza, bat batekotasuna eta burokraziaren arteko lotura eta ondorioa da. Behin eta berriz salatzen dabiltzatena Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformatik.
3. Eta hirugarrenik, Herri mugimendu eta administrazioekin hitzarmenak dituzten ONGkin sortutako tentsioa legoke. Herri mugimendutik, migrarien harrera, desobedientzia eta autoantolakuntzan oinarrituriko ekintza politiko gisa ulertzen dugun heinean, ONG desberdinek, paternalismoan oinarrituriko humanitarismo praktika burutu dituzte, migrarien beharrei entzungo eta hauekiko axolagabekeri jokatu.

Mezu honekin batera, gainontzeko auzo elkarte zein eragile sozialei, migariak auzoetan har ditzaten eta beraien egoera larria salatu dezaten dei egin nahi diegu.

Bilboko Udalari, Diputazioari eta Eusko Jaurlaritzari exijitzen diogu bete dezan duen erantzukizuna eta pertsona hauek bizitzen ari diren arazo estrukturalari erantzun diezaion. Ez ditugu eduki gabeko hitzak onartuko, Bilbo harrera hiria dela zein gure bizitzaren ardatza giza eskubideenganako errespetua dela diotenak, haien hitza bete beharrean daude. Aurpegia zuzitzeko adierazpenetatik haratago, apustu politiko sendoak ematea nahi dugu.

INOR EZ DA ILEGALA!!!

BILBO HARRERA HIRIA!